



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroak 23

Vitoria-Gasteiz, 23 de noviembre de 2021

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK 5 MILIOI EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA ONARTU DU EUSKADIKO PRENTSA IDATZIARI ETA IRRATI SEKTOREARI LAGUNTZEKO COVID19 PANDEMIAREN ERAGIN EKONOMIKOA DELA ETA

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak, gaurko bilkuran 5 milioi euroz hornitutako diru-laguntza programa bat onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko prentsa idatziari eta irratiei zuzendutakoa.

Diru-laguntza zuzen hauek, Covid-19ak eragindako lurrikarra ekonomikoan kokatzen dira, zeinetan, hedabideen sektorea ere kaltetua irten den: egunkarien salmenten beherakada batetik, eta irratietan publizitatearen jaitsiera bestetik. Aldiz, Covid-19aren pandemiak are nabarmenagoa egin du, Europar Batasuneko erakundeek adierazi izan duten bezala, gizarte batean kalitatezko informazioa eta hedabide profesional eta sendoak izateak duen garrantzia, desinformazioaren kontrako eta balio demokratikoen aldeko ezinbesteko tresna bezala.

Halaber, Covid-19aren garaian, pandemiari berari aurre egiteko helburuan, agerikoa izan da hedabide profesional eta gertukoek duten funtzio garrantzitsua eta eraginkortasuna, interes orokorreko eguneroko informazioa gizarteari helarazteko bitarteko diren heinean.

Informaziorako eskubide hori bermatzen dute komunikabideek gurea bezalako gizarte demokratiko batean.

Horregatik guztiagatik, Gobernu Kontseiluak 5 milioi euroko diru-laguntza zuzenen programa bat onartu du gaurko bilkuran. Batetik, Euskadin egoitza duten eguneroko prentsa idatziko komunikabide pribatuak, eta bestetik, hemen egoitza duten edo ordezkariak duten orotariko programazio irratiak, gutxienez %15eko bertako programazioa eskaintzen dutenak eta gutxienez hiru Lurralde Historietako baten eremua hartzen dutenak.

5 milioi euroko laguntza-programaren banaketa egiteko hartutako irizpideak aipatutako hedabide horien audientziak izan dira (gutxienezko audientzia 7.000 pertsona gaztelerazkoan, eta 5.000 pertsona euskarazko irratien kasuan).

Azkenik, diru-laguntza hauen hartzailak datozen bi urteetan euren jarduera mantentzera eta gertuko eta bertako informazioa eskaintzen jarraitzera behartuta egongo dira.

IRRATI EMISORAK EMISORAS DE RADIO	AUDIENZA (milakotan) AUDIENCIA (miles)	%	DIRU-LAGUNTZA SUBVENCIÓN
SER	206	10,45154744	520.244,41 €
NERVION	89	4,515474378	224.765,78 €
COPE	69	3,500761035	174.256,62 €
ONDA CERO	49	2,486047692	123.747,45 €
ONDA VASCA	29	1,471334348	73.238,29 €
HERRI IRRATIA – RADIO POPULAR	10	0,507356672	25.254,58 €
RADIO 7	9	0,456621005	22.729,12 €
BIZKAIA IRRATIA*	7	0,35514967	40.000,00 €
GUZTIRA/TOTAL	468	24	1.204.236,25 €

*Bizkaia Irratia: Audientzien arabera 17.678,21 €ko laguntza legokioke, baina euskara hutsean emitzen duen irratia izanik, programa honen irizpideen arabera, 40.000,00€ko laguntza esleitzen zaio

EGUNKARIAK PERIÓDICOS	AUDIENZA (milakotan) AUDIENCIA (miles)			%	DIRU-LAGUNTZA SUBVENCIÓN
	PAPERA PAPEL	DIGITALA DIGITAL	GUZTIRA TOTAL		
EL CORREO	243	394	637	32,31861999	1.608.716,91 €
DIARIO VASCO	141	155	296	15,01775748	747.535,64 €
DEIA	65	156	221	11,21258245	558.126,27 €
GARA	48	73	121	6,139015728	305.580,45 €
NOTICIAS DE GIPUZKOA	19	49	68	3,450025368	171.731,16 €
DIARIO NOTICIAS DE ÁLAVA	13	32	45	2,283105023	113.645,62 €
BERRIA	58	57	115	5,834601725	290.427,70 €
GUZTIRA TOTAL	587	916	1.503	76	3.795.763,75 €

GUZTIRA / TOTAL	1.971	100	5.000.000 €
------------------------	--------------	------------	--------------------